# TXALUPA




11

1976
Gabonak

Martin Gil
ELGOIBARKO IKASTOLA

# TRABESIA GALANTA

Hamazazpi urte ditut. Aspertua nago, ez dakit zer egin. Kaira joaten naiz itsaso urdina ikustera. Gaur egun ona da, loak harturik dago. Ikusten dut nola arrantzaleak bere familiarengandik agurtzen diran. Etxera joan naiz. Pentsatu dut nere barko txikiarekin, trabesia handi bat egitea. Lehenengo, biajea pentsatu behar dut, eta gero ekipoa eta janaria. Ez dut dirurik, baina itsasoan ez da behar.

Gauzaren bat ahaztu zaida? Ez, ezer ez, dena konpleto dut. Nere barkuan zabalera hiru metrokoa da, eta luzeera zazpi metro. "Mari" du izena. Kaira joaten naiz, eta banoa, Mundua nere partetik hartzen dut. Lehorrean uzten ditut gauza txarrak, eta niri ez zaizkidan gustatzen gauzak. Mundua, itsasoa eta firmamentoa nerea da, nerea, nerea, nerea gaua da. Izarrak dizdiratsuak daude.

Hori da niri gehien gustatzen zaidan izarra! Euskal Herriko izarra, politena, eta galantena. Gaur ondo egin dut lo, gauza askotan pentsatzen. Egunsentia da. Bederatziak dira. Itsasoa bare dago. Lehorretik kilometro askotara nago. libre naiz nik nahi dudana egiteko, bakarrik nagoelako. Gozaria preparatzen dut, gailetak eta kafitesnea. Bero egiten du. Zeruak ez du lainorik. Bakarrik sentitzen naiz. Liburu bat hasi naiz irakurtzen, eta utzi dut itsaso urdina eta olatak begiratzeko. Olatuak bizkor pasatzen dira. Arrainek salto egiten dute, eta ematen du zerbait esatea nahi didatela. Dena poza eta itsaso urdinean. Marinel txarra naiz ni, oso txarra... Ez dakit nola egiten diren itsasoko gauzak, baina zelan edo halan, arreglatzen naiz. Orain gaurko janaria pentsatu behar dut. Bakilaua pil-pilean? Tiburoia saltsan? Ez, ez angula txuriak karuak direlako. Ezin dut oraindik pertsona batekin hitz egitea, bakarrik nagoelako. Baina, ba! ez du inportantziarik. Noiz helduko naiz Euskal Herrira? Orain edo inoiz? Pena asko dut, gizonengandik urruti nagoelako.

Bazkaltzeko ordua da. Lehen pentsatu ditudan angula txuriak jan ditut, eta gero haragia. Gaur nire barkuan, piñu egur zati bat bilatu dut, eta nere herriko basoak gogoratu ditut. Nolako poza, baso bat ozeano erdian ikustea! Katalejoak hartzen ditut, eta lehorra ikusten dut. Ordua zen lehorra ikusteko! ISLAS AZORES dira. Urreratu naiz isletara, eta kaian sartu naiz eta jendeak agurtzen nau. Jende apala eta sinplea da. Portugez egiten dute hitz. Orain, gauza batzuk erosiko ditut, eta ibilaldia ekingo dut. Barkoan sartu naiz, eta banoa itsaso handira. Orain berriz bakarrik nago. Zerua grisa ipintzen ari da, eta lainoak zatarragoak ipintzen ari dira. Zer egin diot itsasoari holan ipintzeko? Ezer ez, ezer ez ...Euria, tximistak, olatu handiak denak batera, barkoa bustitzen dute.

Barkoa, zinbili-zaunbian dago. Belak bajatu ditut, eta kabinan sartu naiz. Pospoloak bustita daude, eta hornilloak ez du funsionatzen. Triste nago eta ohera sartzen naiz.

Egunsentia da. Lehorra ikusten dut. Zer izango da? Estrecho de Bering? Groenlandiako lurrak? Ez, ez; Panama da. Panama bordeatuko dut eta kanalean sartu. Barkoa geldituko dut, eta baino bat hartuko dut itsasoan.

Sartu naiz uretan, ura oso ona dago. Bainadoreko zinturoian, laban bat dut bada-ezpada. O! aleta asko ikusten ditut uretan. TIBUROIAK! Labana atera dut eta tiburoi baten gorputzean sartu dut. Tiburoia hil egin da. Barkora igo naiz aurpegi zuriarekin eta beldurrarekin, Nere biziko sustorik handiena hartu dut. Denbora pasatu da, eta Panamako kanalean sartu naiz orain. Kanaleko sarreran, pasaportea eskatu didate, eta gero pagatu egin dut. Oso garestia da. Larogeta bost kilometro du kanalak, eta esklusa galantak ditu.

Irten dut kanaletik. Ozeano Pazifikoan nago. Hiru ordu tardatu dut kanala pasatzen. Hemen izugarrizko beroa egiten du, 30º. Arrantzan hasi naiz, eta tiburoi bat hartu dut. Gaur, gaixorik gelditu naiz. Zer izango da? Gripea edo malaria? Ez dakit, 38º ditut. Aspirinak hartu ditut eta ohera sartu naiz. Hiru ordu pasatu ditut ohean, eta jaiki egin naiz. Joan zait gaixoa. Afaldu egin dut, eta irratia entzuten dut,"BBC de Londres". Jaiki naiz, tiburoi zati bat jan dut. Oso ona dago. Gero kafitesnea hartu dut. Lihorra ikusten da; Polinesia da. Nolako isla politak eta garbiak diran. Hondartzan sartu naiz, eta barkotik bajatu naiz. Jende asko etorri da saludatzera. Girnaldak eta lorak ipintzen dizkidate zaman. Nere barkoan sartu dira, eta juerga bat egin dugu. Geroago, kokotero batera igo naiz, eta koko bat hartu eta jan egin dut. Hemengo klima oso, ona da. Polinesiako jendea apaina eta ona da. Triste nago gaur, joan egin behar naizelako. Agur esan diet eta joan egin naiz. Polinesiatik joan naizenetik, hogei egun pasatu dira. Nere urrengo eskala, Cabo de Buena Esperanza izango da.

Egunak pasatu dira, eta Cabo de Buena Esperanzara heldu naiz. Denpora gutxian egon naiz. Gauza batzuk erosi eta joan. Hango jendea oso beltza da, kafea modukoa. Bazkaltzeko ordua da, eta sardiñak jan ditut. Gero baso bat esne hartu dut. Krok, krak, krok! Zarata batzuk entzun ditut. Kanpora atera naiz, eta katxaloteak ziren, barkoa ikutzen. FSSSH, FSSSH ! egiten zuten.

Marruekos, eta Afrika guztiko kostak pasatu ditut eta nere herria ikusten dut, Lekeitio. Nolako poza dudan. Jende pila bat dago kaian. Munduari buelta osoa eman diot. Kaian sartu naiz. Fotografoak, T.B.E.-koak, nere ama eta nere aita, danok daude nere herrian. Gero, nere etxera joan naiz.

Unai San Martin
Eibar 1975 ( 11 urte ) 2.-

OILOA, OILARRA ETA OILASKOA:

Egun batez, oiloa, oilaskoa eta oilarra ziren. Amak esan zuen:
- Giro ona dago eta goazen mendira.

Nahiko joastu zutenean, amak esan zuen:

- Eguzkia badijoa eta goazen etxera.

Etxera heldu zirenean, oilaskoak gose haundia zuen eta oiloak ere bai. Amak esan zien:

- Zoazte ganbarara eta ekar ezazue garia.

- Ama, hemen ez dago garirik!

- Nola ez dagoela?

- Ez dago ama!

- Nik joan beharko dut.

Nigarrez irten zen kalera, eta zaldi zuri bat ikusi zuen. Amak, etxe ondora iritxi zenean, alto eman zion.

- Zer duzu etxeko andre?

- Lapurrak etorri dira eta garia harrapatu didate. Nire umeak goseak daude.

- Berrogei eta hamar peseta baldin baduzu, saku bat emango dizut.

- Badaukat. Ekarridazu sakua.

Oiloak eta oilaskoak nahiko jan zuten eta hemendik aurrera, ganbara giltzez itxi zuten.

Aloña Aranburu




MUTIL GAIZTOA :

Behin batetan mutil gaizto bat zen. Egun batez, lorak apurtzen ari zela, amak ikusi eta ohera bialdu zuen. Ama ere ohean zegoen. Bitartean, mutila jaiki zen lorak apurtzera. Amak, konturatu zenean beste lora batzuk apurtuta zeudela, galdetu zion:

- Zuk apurtu al dituzu lorak berriz?

- Ez, ama. - Erantzun zion.

Amak esan zion, behin ere ez zela gezurrik esan behar. Mutila damutu egin zen eta barkamena eskatu zion.

Eduardo Uribe



## 2. MAILA

ESKUTITZA :

Alkate jaunari, agur:

Nire herriko arazo batzuren konponketa eskatzen dizut. Hauk dira batzuk: Nira hauzategiko kaleetan badira zuloak. Ikastola oraindik ez dute bukatu. Eta gainera, haizea zela eta teilatua, apurtuta eduki dugu. Ikastolako adreilu batzuk apurtuta ikusten dira. Ikastolarako bidean zuloak daude.

Ikastolako mutilek, mihina ateratzen digute.

Eskerrik asko. Agur.

Montserrat Garzia

IGELA :

Egun batetan, igel bat zen. Oso pozik bizi zen. Beste egun batetan, uretara joan zen eta arrain txiki batek, kosk egin zion. Gero etxean, untura egin zuen eta ohean sartu zen. Hurrengo goizean, menditik zihoala, otso bat aurkitu zuen. Berak, otsoa zela pentsatzen zuen baina pigura bat besterik ez zen.

Nekane Iriondo

KIRIKINOA :

Behin batetan kirikino bat zen. Beti, beti, txalupa eta Anttonekin ibiltzen zen. Gainera, Anttonek egunoro berebilean ekartzen zuen ikastolara. Ikastolan, kirikinoak, lan gutti egiten zuen.

Mikel Etxeberria

TXOMIN ETA KASKABEL :

Behin batetan Txomin eta Kaskabel ziren. Egun batez, mendira joatea pentsatu zuten. Han otsoa ikusi zuten. Saltaka hasi ziren, otsoa atzetik zedukatela. Otsoak ezin zituen harrapatu eta orduan, txori bat harrapatu zuen. Geroago, Txomin eta Kaskabel etxera joan ziren.

Iñaki Izagirre.

AINTZINAKO IPUINA :

Aintzina, Eibarren haur zoro bat bizi zen. Jendeak esaten zuen, bere aitak herriko umeak, harrapatu eta haitzulo batetan sartzen zituela. Behin batetan haur bat joan zitzaion haitzulora:

- Gizon, itsua naiz eta ikusi egin nahi dut.
- Nik umeak jaten ditut eta ez baldin baduzu nahi zu ere jatea, alde egin ezazu hemendik!!

Umea beldurtu egin zen eta negarrez hasi zen:

- Ua, ua, amatxo!!!

Gizonak bi ostikada eman zizkion.

- Alde hemendik segituan, ume itsu!!

Handik urte askotara, gizon txarra hil egin zen. Ume zoro hura ere bai. Handik aurrera, Eibarko jendea pozik bizi izan zen.

Kristina Gonzalez.

3. MAILA

XALUPA GABONETAN :




Gabonak laister dira eta laisterka datoz. Ni xalupa naiz eta turroia gustatzen zait Gabonetan. Xalupa badoa igerian itsasoan zehar:

- Iaupa!! Turroia jango dut.

Xalupa, bere etxera doa turroia jatera:

- Krak !! Bai gogorra dela!!

Xalupak hartu de xaboia eta bere gorputza garbitu du. Xalupa ohera doa. Agur, itsaso. Agur, xalupa.

Iñaki Uribe

GARI SORO BATEN BIZI ZEN TXORIA :

Bazen gari soro bat, baserri polit batetan eta txori bat, zuhaitz punta batetan. Han goian, esaten zuen:

- Zelako gari soro polita. Bihar hara joango naiz bizi izatera!.

Horrela egin zuen, baina han bizi zen baserritarrak, txori jabole bat ipini zuen. Txoriari, ikusi zuenean, ez zitzaion ajola, bazekielako egurrez eta trapuz egindako muñeko bat zela, eta lo egiteko lekua bilatu zuenean, han geratu zen udaberri osoan.

Uda etorri zenean, hango baserritarra garia biltzen hasi zen, eta txoria, hori ikusi zuenean, joan egin zen. Bere pandari deitu zion eta baserritarrari mokoka hasi zitzaizkionean, joan egin zen. Orduan, txoriak pozik bizi izan ziren, han.




Ni Olentzero naiz eta Gabonetan nator. Ni, laister etorriko naiz neure baserritik, erregaloz beterik. Nire amonak esan dit, ume asko dagoela erregaloetaz pentsatzen. Nire sakua beterik dago eta ni prestatuta nago Elgoibarrera jaisteko. Gaua da. Elgoibarren, zarata asko dago. Xalupa eta beste lagun batzuk ni zaintzen daude. Ni, Aubixa baserri ondoan nago eta Elgoibar, argiz beterik ikusten da. Orain, umeak lotara joan dira. Ni, leihotik sartu naiz eta erregaloak laga ditut. Baserrirantz noala, txalupa ikusi dut eta bere erregaloa eman diot. Neure baserrira heldu naiz. Bihar arte, lagunok!!

Franzisko Jabier



MIKEL ETA BERE AMA :

Bazen behin, urrutiko herri batetan, mutil bat. Besteak bezalakoa zen baina, bere amari pelma iduritzen zitzaion, beti zuhaitza eta jaiotza eskatzen zegoelako. Mikel zen mutikoa. Mikelen aita, haizkolaria zen. Egun batetan, Mikeli esan zion bere amak:

- Isildu zaitez, txo!! - Ez zaitez txepela izan !!.

Gauean, aitak portalean zer edo zer eskutatu zuela, ikusi zuen Mikelek. Eta portaleko atea giltzez itxita zegoela ere, konturatu zen.

Gauez, denak lotan zegozela, Mikel ohetik jaiki eta portalera joan zen. Hura zen Mikelen poza!!. Zuhaitza eta jaiotza zeuden.

Hurrengo goizean, Mikelek bere aitari musu bat eman zion eta denak bizi izan ziren pozik, luzaroko urteetan.

Agur Miren Barandiaran

4. MAILA




POEMAGINTZA :

Gure herriko mozkorra
da Jose Mari.
Ez da tabernaria,
baizik edalaria.
Gure herriko mozkorra
da Jose Mari.

Tabernatik irten
ta beti kantari.
Etxera joanik
nahi du afari.
Edonola bizi nahi du
gura Jose Marik.

Badator berriro
gure Jose Mari.
Ardoa eskatzen dio
tabernariari.
Berriz ere mozkorra
gure Jose Mari.

Xabier Etxabe

POEMAGINTZA; GUDUAK:



Gizonek egiten dituzten
gudu eta borrokak
jolas bat bezala
jokatzen dute azala.



Tiro bat botata,
edo botatzen zapata,
hil egiten dira
zoratuak badira.

Uretan, haizean eta lurrean
ez dago pakerik
"Denok BURRUKETAN"
daude ere gauean.




Neri ez zait gustatzen
eta ez dut barkatzen
burrukan egitea
ez eta pentsatu ere
hauekin jolastea.

Emmanuel Sota

UR TANTAREN ESPERIENTZIA :

Urrutiko herrixka batean, eguzkia oso langilea zen eta lainoak berriz beti alfer.Eguzkiak jai egitea pentsatu zuen batean, lainoa urten beharrean aurkitu zen eta laino hartan bizi ziren ur tanta bi behera begira gelditu ziren elkarri esanaz:

- Nolakoa izango ote da lurra?

Gora-behera haundiak ibili ondoren, lainotik saltatzea erabaki zuten. Salto zuten biek eta beren jauzgailuak zabaldurik elkar hizketan hasi ziren:

- Zuk non nahi zenuke gelditzea?
- Nik itsasoan; Eta zuk?
- Nik, berriz, lurrean gelditzea nahi nuke.
- Orduan, uste dut, bertanbera agur esan beharko diogula alkarri.
- Bai, arrazoi duzu. Agur. Ikusi arte.

Hala, lehenengo ur tanta uretan jauzi zen eta bigarrena baserri bateko askan. Honela kondatzen zuen bere esperientzia askan jauziriko ur tantak:

- Aska hartan zapaburuak zeuden eta ni erabat beldurtu nintzen. Zapaburuetatik ihesi nindoala mutur iletsu bat jarri zen nire gainean eta handik hiru minu-



tutara toki ilun batetan nengoen. Lau ordu geroago, gutxi gorabehera, horiztaturik animalia haren azpikaldetik urten nintzen. Pisa kolorea hartu nuen eta hondartzara garbitzera joatea erabaki nuen. Uretan garbitzen ari nintzela, andre lodi bat jarri zitzaidan gainean eta ur azpiraino bota ninduen. Handik urtenda, haurrekin jolastera joan nintzen. Egarri sentitu nintzen eta iturri batera joan nintzen ur edatera.

Edaten ari nintzela haur bat etorri zen eta ia ia bere ahoan sartu nintzen. Gose galanta nuen. Haur bat bokadiloa jaten arkitu nuen; Susto handi bat eman nahi izan nion, baina.... hain ttipia naiz. Gosearen aurka eta beste gauza guzien aurka lo egitea pentsatu nuen. Gaua zen eta hotz handia egiten zuen; Jardin batetan sartu nintzen eta lo gelditu, Gauean, lo nengoen bitartean, lainoak hartu eta zerura eraman ninduen berarekin. Esnatu nintzenean nire lagun ur tantaren ondoan nengoen.

Eta orduan berriro, elkar ikusteaz pozturik, honela mintzatu zinen:

- Zer moduz itsasoan?

- Oso gaizki konpondu naiz arrainekin. Azkenik, lainoak ekarri nau berriro hona gora.

- Ba, niri ere zuri arrainekin gertatu zaizuna pertsona eta animaliekin gertatu zait. Niretzat esperientzi gogorra izan da.

- Baita niretzat ere. Hemendik aurrera zeruan gelditzuko gara.

- Bai, mesedetarako izango dugu noski.

Eta ur tanta biak farrezka gelditu ziren.

(Elkar-lanean) Nerea Lariz

## 5. MAILA

HERRI TTIPI ETA ARRANTZALEA :

Hau herri ttipi batetan gertatu zen. Herri hau arrantzalea zen eta zortzi etxe zituen; Zortzi etxe hoietan berrogei eta bi pertsona bizi ziren; Hamabi gizon, hamalau andre, zortzi nagusi eta zortzi neska mutil.

Egun batez, Gabonetan, xalupa ez zen etorri; Lehenengo aldia zen Xalupa ez zela etorri Gabonetan; Orduan, arrantzaleak itsasora joan ziren bere bila, baina ekaitza zegoen eta ezin zuten aurrera jarraitu. Bueltatu egin ziren; Baina gizonak etxeratu baino lehen, umeak itsasontzi ttipi batetan joan ziren eta Xalupa bilatu zuten erdi urperatuta. Herrira eraman eta heurekin gelditu zen Xalupa. Begira ezazue: Gizonek ez zuten egin gauza bat, umeek egin zuten. Honek esan nahi du, gogoak dituenak ongi egiteko egingo du, baina beste batek ez bal-

din badu, gogorik, ez du egingo ongi.

Adrian Langara

OLENTZERO ETA XALUPA :

Menditik behera bazijoan gure Olentzero, alai alai, kanta-kantari. Abesten zegoen bitartean, erreka batekin topo egin zuen.

- Ai!! Orain nik ezin dut bestaldera pasa - esan zuen gure Olentzerok eta, orduan, ezin dizkiet eman jolasak haurrei.

Olentzero deihadarka zebilen bitartean, Xalupa txiki bat igerian zebilen, eta esan zion:

- Zer gertatzen zaizu Olentzero? Herrian haurrak zure bila dagoz; Isildu eta joan zaitez laister.

- Ezin dut, ez dakit igerian, eta ito egingo naiz baldin eta erreka hau pasatzen badut.

- Ez bildurtu, nik pasako zaitut neure bizkarrean; Ala, igo gora!!.

- Eskerrik asko Xalupa. Non bizi zara?

- Ni Deba errekan bizi naiz, Elgoibarren ondoan, zertarako nahi duzu zuk hori?

- Ezertarako ere ez. Beno, agur.

- Agur.

Olentzero joan zen eta Elgoibarrera ailegatu zenean pentsatu zuen Xalupari erregali bat egitea eta hartu bainera bat eta eman zion igerian egiteko. Olentzerok berak, igerian ikasiko zuela esan zion.

Ana Mari Iriondo

Gabonetako idazlan ihardunean irabazle gelditu diren lanak dira hauk.

6. MAILA

EGUBERRITAKO JAIAK ETA OLENTZERO :

Urte guztietan bezala , eguberritako jaietan Olentzero etortzen da umeei jostailuak ekartzera. Ume ttikiak, bost urteetatik beherakoak oso pozik ipin-

tzen dira. Ikastolako ormak adornatu egiten dituzte, kanta batzuk preparatu ere, eta abar.... Abenduaren 24erako dena oso polita dago, etxeetan eta ikastoletan.

Etxeetan turroiak erosten bat pobre gelditzen da, eta tabernetan ardoa eraten txoratuta irteten da. Jai hauk ondo, pasatzeko dira .

Baina nor da Olentzero?

- Olentzero umeei jostailuak ekartzen dizkien basarritar zahar bat da .

Eta, zer egiten du Olentzerok mendi tontorrean bakar bakarrik urte osoan?

- Olentzerok urtean lehenengo egunetan bere etxea apaintzen du. Urtearen erdi aldean karta mordo bat jaso eta irakurri. Eta azkenez, jostailuak egin umeei erregalatzeko.

Bere baserritik irteten denean, asko ibili behar du, eta herrira heltzen denean, umeak txilioka hasten dira:

-Olentzero dator!

-Bai, egia, eta erregalu askorekin.

-Niri baloi bat erregalatu behar dit.

-Eta niri auto bat....

Negar egiteko ilusioa dago. Gero, ume guztiak, dantza egiten, Olentzaroren atzetik joaten dira. Olentzerok gozokiak botatzen ditu. Alaitasuna bakarrik dago umeen artean.

Baina, zer gertatzen da Olentzaro bere baserrira joaten denean?

- Ume guztiak triste gelditzen dira. Beste urtebete egon behar dute Olentzaro berriro etorri arte. Tarte horretan umeak jostailuekin ibiliko dira.

Olemtzaro orain bere gauzak egiten dago, guregana berriz noiz etorriko zain. Geroago umeak berriz pozik ipiniko dira.

Joseba Esnaola

## 7. MAILA

EGUBERRIAK :

Eguberriak gertu daude eta jendea gauza garrantzitsuenak ari da preparatzen.

Gutako ume askok Eguberritan jende guztia pozez beterik dagoela uste dugu, baina hau ez da horrela, badago penaz dagoen jendea. Jende gehiena pozez egoten da, bere txanpainarekin eta botila ardo on batekin, bere familiarekin edo lagunekin hizketan, baina jende dena ez dago horrela. Batzuk ohean gaixorik daude, beste batzuk heritegitan bizi gutti dutela aurretik, beste batzuk etxe gabe.... pertsona gaixo baten sentipenak agertzen dira bertso hauetan:

Nire bizi maitea
laster dut nik galdu;
Jainkoaren etxea
da nire abialeku.

Eguberriak gertu daudelarik
pena ematen dit hiltzeak,
denok berdinak garelarik
nire beharra da joatea.

Bertso hauetan ikusten den bezala, pertsonak badaki hil egin behar duela edozein momentutan, eta pena ematen dio Eguberritan hiltzeak, baina, esaten duenez, bere beharra da.

Gu Eguberritan gustora gabiltza: Hotza badugu, sua pizten dugu; Jatea nahi badugu, jan egiten dugu. India aldean dabiltzan pertsonak, berriz, ez. Pertsona hauek ez dute etxerik, gosez hiltzen dira. Laguntza eskatzen dute, baina jende gutxi arduratzen da. Hemengo umeek jostailuak hartzen dituzte, India aldekoek ez dute hartzea.

Beren bizia zoritxarrekoa da, ezin dute egin guk egungo egunean egiten ditugun gauzak.

Azken urte hauetan aurrerakada bat egin da, baina ez da nahikoa. Hauetako pertsona batek honela pentsa dezake:

Mundu hontara etorri nintzenean
ona zela uste nuen,
baina laguntza eskatu nuenean
inork ez zidan erantzuten.

Pertsona hauen bizia oso penagarria da. Milaka eta milaka hiltzen dira egunoro gosez, hotzez....

Umeak dira Eguberritan poz gehien duten pertsonak. Opprak hartu bezain laster hasten dira erregeei eskatu behar dizkieten jostailuez pentsatzen. Baina Eguberriak es dira jostailuak hartzeko, ez dira erregeak ikusteko; Eguberriak Jesusek gugaitik egin zuena oroitzeko da.

Eguberritan etxe denak Jesusen irudiz beterik daude. Bestalde, ume batzuk, kalez kale, abesti eder, polit eta pozgarri batzuk abesten dituzte. Euskal Herrian horrelakoak dira Eguberriak.

Mendi orlegiek lo egin nahi dute eta izara zuri bat jantzten dira gainean. Txoriak beste lurralde beroago batzuetara joaten dira. Baserritarrek lan asko egin behar dute, egun hauetan girca oso hotza bait da. Askotan baserritarrek landutako lurrak beren balioa galdu egiten dute eta baserritarrek diru asko galtzen.

Euskal Herrian pertsona famatu bat dugu Eguberritan. Denok dakigun bezala Olentzaro da. Bere makilarekin, bere sudur luze eta gorriarekin, kalez kale joaten da.

Euskal Herriko pertsona batzuk, Olentzeroren egunean hartzen dituzte jostailuak eta erregaliak, beste batzuk, berriz, Hiru Erregeen egunean.

Eguberritan Jesusen oroitza oso sakon bat aztertzen da. Desfile bat egoten da Jesus hil zuten egunean. Bertan bere irudi batzuk agertzen dira. Irudi hauen bidez eta Mezaren bidez Jesusek gugatik pasa zituen sufrimenduak ikus ditzakegu. Baina Jesusen sufrimendu hauek ez digute poza kentzen, aurrera joaten gara Eguberriak direla pentsatuz. Era berezi batetan ibiltzen da jende gehiena. Beren poza eta alaitasunaren bidez Eguberriak urtearen festa famatuenak, alaienak eta gozoenak dira.

Azkenengo eguna datorrenean, jendea tristetu egiten da, baina pentsatzen hasten denean, horrela esaten du:

- Zergatik tristetu? Etorriko da hurrengo urtea, eta alaiagoak egingo ditugu Eguberriak.

Bertso hauen bidez agur esaten dizuet:

Nire Gabon maitea,
zaude zu pakez betea,
zaude zu pozez betea,
etorriko da hurrengo urtea.

Vicente Alonso.

## 8. MAILA

EUSKAL HERRIKO OHITURAK :

Zortzi egun falta dira Gabon egunerako. Baserrian giro desberdin bat nabaritzen da. Goizean goiz etxeko gizonak, xerria xerritokitik atera eta, prest daude aberea hiltzeko. Orain bertan etorri da bailarako xerri-hiltzailea. Dena ongi dago. Aurrera orduan !

Bi ordu pasa eta gero, ia dena prest dagoenean, xerri-hiltzailea etxera doa. Orduan, etxeko andreak, odoloste eta txorixoentzako okela prestatzen hasi dira.

Arratsaldean, berriz etorri da txerri-hiltzailea piskat laguntzera. Gero, afaltzen gelditu da,

eta joaterakoan, etxeko aitonak, kilo erdi solome eta gibel zati bat eman dio. Hura pozik joan da.

Abenduaren 24-a da. Poliki poliki, baserria esnatzen ari da. Giroa oso animatua agertzen zaigu. Ondo gosaldu ondoren, arraultza, urdaia eta esnea taloekin etxeko lanak hasten dira. Hurrengo eguna jai egin behar dela eta, bi anai zaharrenak gurdia hartu eta hor doaz harbitara abereentzat.

Poliki poliki, gurdia harbiz betetzen ari da. Azkenean, badatoz etxeruntz. Harbiak kortan utzi eta berriz ere badoaz. Beharrezkoa da janari asko edukitzea abereentzat.

Bazkaltzeko ordua da. Denok pozik daude. Asko hitzegiten da eta asko jan ere.

Bazkaldu ondoren, anaia batzuk, beste gurdi handi bat hartu eta mendira doaz egur bila. Bilduta zedukaten egurra nahikoa ez dela eta, gehiago ekarri behar da, gauean su handi bat egiteko.

Anaiek haritz zahar bat aukeratu dute, oso erraza mozteko. Laster bota dute; orain zati handitan txikitzen ari dira eta gurdia betetzen. Adarrak utzi egiten dituzte. Enborra bakarrik eramango dute. Egur asko bildu ondoren, prest daude joateko. Hamar minutotan, berriz ere etxean dagoz. Han, zerbait jan ondoren, egurra zati txikiagotan zatitzen hasi dira.

Bitartean, baserriko gizon zaharrenak eta jakintsuenak, pinadietara joan dira, pinuak nola dauden ikustera, atzo haize handia egin bait zuen.

Emakumeak, berriz, sukaldean afaria prestatzen ari dira. Asko saiatzen dira eta oso afari ederra egiten ari direla dirudi.

Iluntzen ari da eta pinadietan egon direnak etorri dira. Orain, etxeko aitona eta bere seme bat abereei janaria ematen ari dira. Anaiek txikitzea bukatu dute eta su handi bat egiten ari dira. Bitartean, alaba bat mahaia ipintzen dago. Mementu garrantzitsuenetarako gordetzen dituzten platerak atera ditu. Oso dotoreak dira. Alabak oso Kontuz erabiltzen ditu. Balio handikoak dira. Hamabi plater ipini ditu. Bat aitonarentzat, bi ama eta aitarentzat, hiru alabentzat, bost, semeentzat eta beste bat, urrutitik datorren osabarentzat. Hau hiriburuan bizi da eta diru asko du. Gabon guzietan etortzen da eta erregali mordo bat ekartzen du.

Afaria prest dago. Hasteko, osaba bakarrik falta da. Oraindik ez da etorri. Oso giro berezi bat dago. Noiz etorriko da? Zer ekarriko du ? Baina .... entzun! Atea jo dute! Bera da! Aitona doa atea irikitzera. Bai, osaba da. Gauza asko dakartza; anisa, koñaka, patxarana ... eta, begira!, turrcia ere !.

Piskak hitzegin ondoren, , emakumeak janariak ekartzen hasi dira. Janari asko eta ederra! Makailoa, kapoiak, intxaur- saltsa eta, nozki, azak. Lehengo urtean azarik ipini ez zutelako, aitona oso haserretuta ohera joan zen afaldu gabe.

Urte honetan ez da horrela gertatuko !

Elkar-hizketa oso animatua dago. Aitonak lehengo ipuin zahar batzuk kontatzen ari da. Zatika zatika oihu ikaragarri bat botatzen du. Hau isil dadin eta besteek sopa ondo jan dezaten.... aita abesten hasi da bere gozo guztiarekin, baina aitonak sekulako karrasiarekin geldiitu du. Azkenean, amaitu dute afaria. Emakumeek mahaia jaso ondoren, gizonak, kopa bana hartu eta hitzegiten hasi dira. Osabak berri asko ditu ematteko. Gero, anaia zaharrenak bertso batzuk bota ditu. Oso bertsolari ona da. Emakumeak, bere lana bukatutakoan, karta jokoan hasi dira denak, anis trago bat eranaz. Aitonaren oihuak ez dira amaitzen. Bota !!, Paso !!.... Osaba hiriko gauzak kontatzen hasi da. Zein mundu harrigarria den hirietakoa !, baina zein burroi gozoak egiten dituzten han ....

Horrela, hamaikak heldu dira. Errondarako ordua da. Bi anaia zaharrenak jeiki eta badoazela esan dute. Hirugarren anaiak ere joan nahi du, baina aitonak, oso haserretuta, ezetz esan dio beste karrasi batez. Hura oso triste gelditu da. Hogei urterekin ezin du joan !

Beste bi anaiak, kortatik lasto pilo bat hartu, berari su eman eta, hor joan dira. Kanpoan hotz dago eta berotzeko berekin daramaten koñak boteilari trago luze bat eman diote.

Goizean, lagun mordo batekin, gauean Agarre baserrian elkartzea erabaki dute eta hor dihoaz gure anaiak Agarreruntz. Han sekulako juerga egingo dute eta seguruenez mozkortu egingo dira. Bi anaiak alai dihoaz, abesten, koñakari esker. Urruti, argi txiki batzuk ikusten dituzte eta bertatik kantu batzuk entzun ere. Bidea luzea da eta lastoa bukatzen dihoa. Bizkorrago joan behar dute !. Azkenean allegatu dira Agerrera. Azkenak dira. Zaratarekin ez da ezer entzuten. Radio zahar bat ekarri dute eta bere soinuarekin demaseko juerga sortu da. Edariak ugari daude. Mozkortu gazteok ! .

Baserriak zoroetxe bat dirudi. Hango oihuak, hango musika !. Etxeko alaba gazteak, gaztez inguraturik daude, jendeak abere arraru bat inguratzen duen bezalaxe.

Ia hamabiak dira; Gauerdiko mezatarako ordua. Herriko elizan apaiza dena prestatzen ari da. Bide guztietatik jendea agertzen da elizaruntz. Gazte batzuk ere badoaz, baina asko mozkorturik, ardo edo koñak boteilarekin. Horrela ezin du jarraitu ! Laster kendu beharko dute meza hau !. Nola sar daiteke elizara, Jaunaren etxera, demaseko mozkorrarekin ? !

Jendea elizan sartzen hasi da. Apaizak aurpegi ilunez ikusten ditu ardo boteilak, baina hala ere meza eman behar du. Jende asko dago elizan. Bete betea dago.

Bukatu da meza, baina ze meza luzea !. Jendea, berriz ere, etxera doa. Pozik eta abesten batzuk, ez hain pozik besteak.

Bitartean, Agarren juerga amaitzen dihoa. Gazte asko zeharo mozkorturik dago eta jendea joaten hasi da. Oso ongi igaro dute gabon-gaua, baina ordua da joateko.

Bi anaiak mozkorturik daude. Oso poliki, badoaz etxeruntz. Agarreko neskez ari dira, oso alai, hitzegiten.

Zergatik ez dira beti Gabonak izango?.

Etxera heldu dira. Han oraindik kartetan dabiltza eta ez dago animazio asko.

Oso berandu da eta oraindik hor daude denak sukaldean. Azkenean, poliki poliki, oso nekatuta, denak ohera joaten hasi dira.

Urtarrilaren 7 a da. Gabonak oroitzen gelditu dira. Dena beti bezala gelditu da.

Xabier Zabaleta

# Marmitakoa

ZALDI SALTOA:

Zaldi saltoka egiten baduzu, derrigorrez Gabon kutsuko esaera bat osatuko duzu.

| | | |
|---|---|---|
| HA | ra | ha |
| tor | til | kor |
| ki | tor | txe |
| e | biz | mu |

HIZKI-SALDA:

Elgoibar inguruko zazpi mendiren izenak daduzkazu hemen. Ea, topatzen dituzun.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | R | O | K | I | A | K | R | O | M |
| K | A | R | R | T | E | I | A | A | K |
| K | A | R | T | I | L | A | U | I | R |
| A | T | E | I | P | I | M | H | D | E |
| R | A | E | T | G | A | T | I | N | A |
| A | R | M | S | L | O | T | S | O | A |
| K | M | R | A | S | O | I | P | K | L |
| A | S | K | P | I | A | P | T | A | M |
| T | O | P | R | S | M | B | H | Z | I |
| E | R | S | U | R | O | M | S | T | I |

EUSKAL HERRIA EZAGUTZEN:

Beren urak Kantauri itsasora ixurtzen dituzten bederatzi euskal hibaiaren ibilera dadukazu hemen marrazturik. Ea beren izenak asmatzen dituzun.



# Ipui bat Olentzerotaz

Jon ZABALETA.





# ABESTIAK

## GAUEKO IZAR

Gaueko izar argitsuena
piztutzeakin batera
haurtxo eder bat etorri zaigu
gaur arratsean etxera.

Orduez geroz etxeko denok
poztu ta zoratzen gara,
haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera (berriz).

Alai ta pozik kanta dezagun
haurtxo honen etorrera,
gure iluna alaitutzeko,
jaio da argi ederra.

Gaurtik aurrera atzerri hontan
zorionekoak gara,
haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera (berriz).

## HAUR EDER BATEN BILA

Haur eder baten bila
gabiltza zoratzen,
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen.

Jaungoikoaren herri
maite Jerusalen
esan zaiguzu laster
Jesus nun jaio den (berriz)
Ai, hau gauaren zoragarria
Jesus jaio da Belenen.
Herririk herri bila gabiltza
bila gabiltza beraren.

## HATOR, HATOR

Hator, hator mutil etxera,
gaztaina ximelak jatera.
Gabon gaua ospatutzeko
aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita parrezka
amaren poza atseginez.

Eragiok mutil,
aurreko danboliñari,
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean
txipli, txapla, pun.
Gabon gaua pozik igaro daigun.

Epel, epel gaur sukaldean,
aitaren ta amaren ondoan.
Jesus haurra jaio delako,
elkarren maitasun sutsuan.
Gaurko gau honen argi biziak
pozten gaitu bihotzean.

Eragiok mutil .....

## BIRJINA MAITE

Birjina maite lotan dago
zure seme laztena.
Seaskatxo bat ipiniozu
gure bihotzen kutunari.
Ongi bai ongi igaro ditzan
gauak eta egunak.
Poliki, poliki eragiozu
egin dezan lo ona.

Ruben Arozena

## OLENTZERO

Olentzero joan zaigu mendira lanera
intenzioarekin ikatz egitera.
Aditu duanian Jesus jaio dala
laisterka etorri da berri ematera.

.....

Horra, horra, gure Olentzero
pipa hortzian dula eserita dago,
kapoiak ere baditu arrautzatxuekin
bihar merendatzeko botila arduakin.

Olentzero guria egin dugu ase
bakarrik jan dizkigu hamar txarri gazte,
saieski ta solomo, makina bat este
Jesus jaio da eta, konsola zaitezte.
Horra, horra.....
Olentzerok dakarzki atsegin ta poza
jakin baitu mendian Jesusen jaiotza.
Egun argi honetan alaitu bihotza
kanpo eta barruan kendu azkar hotza. Horra, horra....